

Milagros Bidegain (1922-2006)

Maria Pilar Lasarte

Arratsaldeon guztioi. Mila esker Milagrosen familikoei eman didaten informazio guztiagatik, eta familikoak ez diren beste guztiei.

Familiakoak: Maritxu Bidegain, lehengusua, José Antonio Bidegain, iloba.

Familiakoak ez direnak: Arantxa Perez Gaztelu, Errenteriako andereñoa Milagrosen ikasle izana. Maritxu Ayerza, Magisterioko irakaslea, Fernando Viñuela eta Jokin Mujika Diputazioan Bibliotekan Milagrosekin lan egin dutenak, Koro Zumalabe Diputazioko langilea, Patri Urkizu Milagrosen ikasle izana E.U.T.G.en Historiako arloan eta azkenik Luis M^a Bereziartua irratian Milagrosekin lan egin zuena. Bestalde, Joseba Sarasolari, *OARSO*, Erreterian ateratzen den aldizkarian Milagrosen hilberri idazkia egin zuelako. Honetaz baliatu naiz berri batzuk emateko,

Milagros Bidegain Barkaiztegi Erreterian jaio zen 1922ko ekainaren 6an Kapitanenea kalean, 8.zenbakian; geroago Beheko kalean bizi izan ziren eta azkenik Santxoenea 9an zegoen etxera aldatu ziren, bere amonaren etxera. Donostian hil zen 2006ko abenduaren 23an 84 urte zituela, kultura mundura murgildutako bizitza luze baten ondoren. Milagrosek bizi guztia Erreterian eman zuen, azken hiru urteak izan ezik. Hauek Donostian Aldamar kalean egin zituen gaixorik, erortze bat zela medio ezin mugiturik gelditu zelako.

Familia eta bertako giroa

Gurasoak: Ama Dorotea Baztarrika Esnal, Pasai San Pedrokoa, aita Severiano Bidegain Urigoitia Erreterikoa, harakina. Bost seme alaba ekarri zituzten mundura, hiru mutil, Estanis, Jose Mari eta Ignazio, bi neska Milagros eta Loli bikiak, hauek txikiak ziren. Loli, bere ahizpa bikia, 30 urte zituela hil zen, giltzurrintako gaixotasunak jota, Milagrosek oso gaizki pasa omen zuen garai honetan.

Ama Doroteak, harategian lan egiten zuen, bikiak hazitzeko Mariaren laguntza izan zuen, Maria hau, ezkongabea, aldi berean 17 urte zituela haur bat izan zuen, bere alaba hazi eta titia ematen zien baita ere bikiei Milagros eta Loliri. Garai hartako giro sozialaren eraginez, Mariaren alaba hori bere benetako ama, hau da Maria, izeba zelako ustetan hazia izan omen zen. 17 urte zituela etorri zen Milagrosen etxera eta bertan bizi izan zen 93 urteekin hil zen arte. Oso maitatua eta aintzat hartua izan omen zen, etxeoandre lanak eginez

Ikasketak

Lehenengo ikasketak Erreterian bertan egin zituen, Hijas de la Cruz ikastetxean, ondorengoak honela agertzen dira Diputazioko agiritan; goi mailako batxilerra 7 urte Donostian Instituto Peñaflozidan; Donostian Magisterio Eskolan Maistra; Filosofia

eta Letretan lizentziatua: Historia arloan 5 urte, arruntak Oviedon, espezialitatea Zaragozan. Honeraino Diputazioko agiriak diona.

Donostiako Magisterio Eskolako agirietan 256. expedientean, Milagrosek 18 urte zituela, hauxe aurkitu dugu: goi mailako batxilergoa ziurtatzen duen agiria eta 1940-1941eko kurtsoan, *Complemento al Bachiller*, urte bateko ikasketak egina, horixe zen denbora hartako plana maistra izateko eta izena *Complemento al Bachiller* zuen

Expediente berean, 1940. urtean, maistra izateko matrikulatu zenean, portaera ona zuela baieztatzen duten dokumentuak daude Magisterio Eskolan, gaur parregurea eragiten diguten agiriak, Milagrosi eskatu zizkietenak: Errenteriako erretorearena, alkatearena, eta falangeko arduradunarena.

1. Errenteriako Asunción Parrokiako abadeak sinatua, 1940ko urriaren 10ean.:

- *...es de una conducta ejemplar en su vida religiosa y moral, perteneciendo a la Congregación de Hijas de María, frecuentando lo santos sacramentos, mostrándose como verdadera católica práctica.*

2. Errenteriako alkatearena, Pedro Albisu Arroate:

- *Certifico: Que de los antecedentes oficiales consultados y datos facilitados por los agentes de la Autoridad ... ha observado una intachable conducta*

3. Falange Española Tradicionalistakoa, Jefe Local de Rentería de F.E.T. y de las J.O.N.S., D. José Imaz Fernandez:

- *Milagros Bidegain de 18 años de edad ha observado buena conducta y adhesión al Glorioso Movimiento. 10 de octubre de 1940. ¡Arriba España! ¡Viva España!*

Hauk guztiak adierazten digute Milagrosek ikasketa garaian, 18 urteko neska gaztea zelarik, jasaten zuen zama soziala.

Joseba Sarasolak, *OARSO*, Errenterian ateratzen den aldizkarian, 2007-07-22an 42 alean, 37-38 orrialdeetan, Milagarosen hil-berria idazten du eta honela dio:

“Milagrosek, garai hartan harrigarria zena, batxilergoa egin ondoren, Filosofía eta Letrak ikasketak prestatzeari ekin zion. Latinean espezializatu zen etxean ikasten zuen, unibertsitatera joan gabe, azterketak egitera izan ezean, ikasketa garai horretan, D. Francisco Yarzak bideratu zuen eta baita laguntza handia eman ere. Valladoliden egiten zituen azterketak eta bertan eskuratu zuen titulua.”

Diputazioko agirietan irakurri duguna eta *OARSO* aldizkariak diona ez datoz bat, zeren Historiako espezialitatea egin zuen Oviedon eta Zaragozan eta Joseba Sarasolak dio *Latinean espezializatua*. Behar bada autodidakta izanen zen latinean. Valladoliden ateratako titulua batxilergoa behar zuen izan.

Nolanahi ere, ez dira emakume asko aurkitzen bere belaunaldikoen artean, Milagrosen neurritira iritsitakoak. Goi mailako ikasketak egin ondoren, nolabaiteko arrakasta soziala lortzen du. Hauk egiten dute berezi Milagros Bidegain, batez ere garai haiek 1922an jaioa eta emakumea zela gogoan hartzen badugu. Dena dela

lorpen hori ez zitzaion nekerik gabe iritsi eta lana gogotik egin behar izan zuen, aurrerago ikusiko dugun moduan.

1967ko urtarrilaren 27an Euskaltzaindiko urgazle izendatua izan zen.

Argitalpenak

Sociedad Vasca Amigos del Pais eko boletinean argitaratu zituen lan hauek:

1954 “*Los escritos apócrifos de Andramendi*” Koldo Mitxelenarekin batera

1955 “*Nombres vascos de plantas*” Salamancan ateratako liburu honi aipamen txiki bat egiten dio.

1955 “*Bibliografía*” *bilduma bat* Milagros Bidegain, Koldo Mitxelena eta Fausto Arocena, elkar lanean.

1967 “*Textos vascos antiguos*” Anuario de Filología Vascan “Julio de Urquijo”

1969 “*Guipúzcoa*” liburua Kutxak Donostian argitaratua, Xabier de Aramburuk zuzendua. Historiako datuen babesa Milagros Bidegain dakar.

Lanak

Hauek izan ziren Milagrosen lan tokiak: Erreterian, Hijas de la Cruz Ikastetxean, Zarautzen, Santa Ana Ikastetxean, Irunen, Akademian eta Donostian, Institutoan, E.U.T.G.en Historiako arloan eta Diputazioan. Hasierako lana irakasle izan zuen Milagrosek, Literatura, Latina eta Historia ematen zituen. Azken hogeitau urteak Diputazioan Biblioteka eta Artxiboko arduraduna.

Irungo Akademia

Titulua lortu ondoren, Fuertes abizeneko lagunarekin batera, garai hartan sona handikoa izan zen akademia bat ireki zuten Irunen, Chantre etxean, Paseo Colon kalean. Hemen ematen zituen klaseak Koldo Mitxelenak, kartzelatik irten berria eta langabezian zegoenak, bertan aurkitu zuen gerra ondorengo bere lehen ogibidea. Nahiz eta osasunez gaizki ibili, bizi beharrak eraginda hemen lan egiten zuen.

Diputazioko lana

Oposizioak egin ondoren Diputazioan Bibliotekako eta Artxiboko arduraduna autatua izan zen 1967-12-01 sartu eta 1987-04-06 jubilatua, 65 urte zituela, beraz 20 urtez egon zen Diputazioko lan horretan

Lehen aipatu dugun *OARSO* Erreterian ateratzen den aldizkarian, honela dio Joseba Sarasolak:

(2007-07-22an 42.alean 37-38 orrialdeetan Milagrosen hil-berria idazten du)

“Irakaskintza lanetan jarraitu zuen Donostiako Institutuan, beti ere latineko irakasle bezala, baina ez zituen inoiz oposaketak prestatu eta ez zen plazaren jabe izatera iritsi. Inguruko lagunek eta Koldok ere, ahaleginak egin zituzten oposaketara aurkez zedin, baina ez zuten lortu. Nonbait, Milagrosek erakusten zuen azal gogor haren azpian zalantzaz beteriko pertsona izkutatzen zuen.

Gurutzearen Alaben ikastetxean ere latinezko klaseak eman zituen hainbat urtetan. Batxilergoa ezartzen hasiak ziren Erreterian, baina ez zuten gai hori eman zezakeen irakaslerik eta, laguntza moduan, Milagros prestatu zen klase horiek ematera. Gero Donostiara esaminatzera joango ziren neskak, haren etxera

joaten ziren latina ikastera. Hori bai, Milagrosek jartzen zuen klase horien ordutegia, bere ordu librean arabera. Askotan ez orduak gertatzen ziren, igande goizetan, adibidez.

Bere bizitzan izan zituen Milagrosek hain ezagunak ez diren jarduerak eta nahiko isilik pasa direnak: urtetan adibidez “Irun Hiriko” sari literarioen epaimahaikide izan genuen, Gipuzkoako gizon ilustratuenekin batera.

Baina dudarik gabe, Milagros ezaguna zaigu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Liburutegiko liburuzaina izan zelako eta, postua lortu zuen modua ikusirik, izatera iritsi zelako. Oposaketara aurkeztu zenean bere arerioak, ingelesaren ezaguera handia zuen arren, euskararik batere ez omen zekien. Eta hor, gure Milagrosek aurea nabarmen hartzen zion. Eztabaida gogorak gertatu omen ziren epaimahaian, baina azkenean Milagrosek eskuratu zuen plaza hori. Gauza ez omen zen hor gelditu eta arazoa hauzietara eraman zuten. Sententziak berretsi zuen epaimahaiaren erabakia. Eta hor dugu Milagros, Latineko lizentziatua, liburuzain eta artxibari bihurtua.

Bertan aritu zitzaigun lanean, 65 urtekin jubilazioa iritsi zitzaion arte. Baina ez omen zitzaion gustuko gertatu bizimodu berria hartu beharra eta gogoz kontra hartu behar izan zuen”.

Honeraino *OARSO* aldizkariak diona.

Maritxu bere lehengusuak adierazi digunez, Mitxelenak euskara zekien norbait Diputazioko Bibliotekan sartzea nahi zuen eta halaxe gertatu zen, baina ez musu-truk, ederki samar kostatako oposaketa istiluren ondoren hartu zuen Milagrosek postua.

Donostian, Biblioteka Munizipala zegoen, baina hemengo arduradunak ez zekien euskaraz, ingelesean iaioa izan arren . Diputazioan sartzeko Munizipalekoa eta Milagros biak ibili omen ziren lehian kargu hori lortzeko, azkenean Milagrosek lortu zuen, baina ederki kostata, Joseba Sarasolak *OARSO* aldizkarian dioenez, sententzia eta guzti. Kontuan eduki behar dugu frankismoaren garaia zela 1967. urtea, istilu horiek gertatu zirenean.

Sozialki Erreterian zegoen giroa

Lehen aipatu dugu, nekerik gabe ez zela iritsi Milagros ailegatu zen mailara. Kontuan hartzen badugu bizi izan zuen giro soziala, are arrigarriagoa egiten zaigu bere ibilbidea. 1936. urtean, gerra zibilaren hasieran, 14 urte zituen, batxilergoa egiten ari zela buru belarri jo genezake. Zer baldintzetan? Ez dugu lekukorik aurkitu hau zehatz-mehatz jakiteko zeren bere adinekoak joanak dira, baina orduko egoerak ez zuen ikasteko giroa gozatuko. Erreterian, bere herrian, karlistak eta liberalak borrokan, euskal munduan zalaparta, gerrako tximista suntsitzailearen danbadak non nahi. Horixe zen orduko giroa, Milagros neska gazteak, familia bertatik bizi izan zuena, zeren bere aita eta Maritxu Bidegainen aita, bi anaiak, Erreteriko “Circulo Liberal” etxearen sortzaileetakoak ziren, Maritxu Bidegainen bere lehengusuak esan digunez.

Gerra ondorengo urteak

Guerra ondorengo urteak ere eragozpenez beteak izanen ziren Milagrosentzat. Ez dugu topatu xehetasun gehiago baina pentsa genezake ez zirela patxadazkoak izanen inguruan zegoen istilu gorriak eta triskantzak gogoan izanik.

Geroago Frankismoaren laino zorigaitzokoa zeukan gainean eta hemen ikusten dugu Milagros euskarazko klaseak ematen. Honela dio Joseba Sarasolak *OARSO* aldizkarian:

“Ezagutzen eta onartzen ez zaizkion jardueren artean, Milagrosek euskararen alde egindako lana koka genezake. Urteetan, garai garrantz haietan, arratsaldez eta eginbidea amaitu ondoren, euskarazko klaseak ematen zituen Foru Aldundiaren egoitzan inongo ordainsaririk gabe. Irratiz ere baserriarrei irratsaioa urtetan mantendu zuen bizirik”.

El Pais aldizkarian 1999-11-12 Baserri hil zenean egindako idazkian hauxe irakurri genezake, Jose M^a Iriondok esandakoaz ari da artikulugilea:

“Hedabideetan Basarrik eginiko lanaz “aintzindari” izan zen. Artetxe, Lujanbio, edota Arrueren eskutik hasi ziren M^a Dolores Agirre, Milagros Bidegain, José M^a Etxebeste eta Basarri irrati lanean”.

Luis M^a Bereziartuak, Milagrosekin batera irratian ibilia, hauxe adierazi digu: “Baserrik egiten zuen emanaldia “La voz de Guipuzcoa”zen , Milagros ez zen hemen ibili “Radio San Sebastián” izenekoan baizik”.

Radio San Sebastián honetan José de Artetxe eta Luis M^a Bereziartuak egiten zuten saioa “Charlas con los baserriarraz” izenekoa, gatzelaniaz eta euskaraz, dena idatzita edukitzen zuten alde aurretik, zensura Gobierno Civilean pasa behar zelako. José de Artetxe hil zenean, Milagrosek eta Luis M^a Bereziartuak egiten zuten saioa. Eguneroko pasakizunak, baserriko gaiak, eguraldia...eta abar izaten zituzten hizpide

Diputazioko giroa

Diputazioan bertan ez dut uste Milagrosek euskal giro atsegina aurkituko zuenik, bere oposaketa dugu lekuko alde batetik eta bestetik, garai hartan bizitutako eta adierazle diren bi pasarte, aipatuko ditut, nik bizitutakoak:

- 1) Euskaltzaindiko idazpurua paretatik kendu zutenekoa: Bibliotekako solairura pasatzeko ate nagusi bat zegoen eta bi idazpuru, ederki adierazten zutenak barrengo edukia, batek Biblioteka zion eta besteak Euskaltzaindia, marmolezkoak, Diputazioko ikurrarekin paretan oso gogor josiak. Egun batetik bestera Euskaltzaindikoa desagertu zen, kendu zuten.
- 2) Eta bigarrena: Diputazioko sail desberdinetako langileak biltzen ziren fotokopiak ateratzeko gelan. Behin baino gehiagotan entzun nuen “*Zu ez zara Diputaziokoa*”. Barrengo jende batzuk ez zuten begi onez ikusten euskal mundua. Ez denak noski, zorionez, zeren hemen ginen etxe honetan. Nik beti erantzuten nien: Euskaltzaindia, 1918an Diputazioek sortutako erakundea zela. Nire baitan nahiko eskubide neukala iduritzen zitzaidan.

Diputazioan, Euskaltzaindiko langile moduan, 1968. urtean sartu nintzen, Arantzazuko biltzarra baino lehen. Ordurako hor zegoen Milagros, baina Pedro Berrondoren aginduetara nengoenez, Diputazioko harreman eta bestelakoak bere esku zeuden. Toki dotorean, hori bai, lehenengo solairuan Elkanoren gela apainean geunden. Hemendik bigarren solairura pasa ginen, Eusko trenea zegoen bulegoaren alboan. Ondoren hirugarren solairura, Biblioteka zegoen esparruan kokatu ginen, Ikertzaileentzat gordetako toki bereziaren alboan. Erdia Ikertzaileentzat eta beste erdia Euskaltzaindiarentzat banatu zuten. Denbora luzean hemen egin zituen Euskaltzaindiak hileru osokoen bilkurak. Gero Biblioteka esparrutik atera eta beste bi bulego gehiago izan genituen 3. solairu honetan, Txurruka kalera pasa aurretik, azkenik Hernani kalean kokatu ginen eta gaur badirudi nahiko finkaturik dagoela hor.

Euskaltzaindiak jasan zituen, aipatutako toki aldaketak, zegoen giroaren adierazgarri dira. Euskaltzaindia, Diputazioan 1968.urtean hasi zen lanean, Milagrosen sarrera 1967.urtean gertatu ziren istiluetatik urte bat geroago, bost bulego desberdin izan zituen Euskaltzaindiak etxe honetan, edo izan genituen. Nik nire burua katuak katakumeak erabiltzen dituen moduan ikusten nuen, toki batetik bestera trasteak eta liburuak garraiatzen. Halere eskertzekoak dira giro horretan hemen egoteko ahaleginak egin zituzten guztiak

Hirugarren solairuan Biblioteka, Ikertzaileen tokia eta Euskaltzaindia, zati hau guztia Milagrosen ardurapean zegoen eta giltzaz ixten zuen Milagrosek Bibliotekako aretora, bere bulegora, Euskaltzaindiarenera eta Ikertzaileenera pasatzeko zegoen ate nagusia, ordu bietan lana uzten zutelako. Bera baino beranduago ateratzen baldin baginen, giltza uzten zigun. Milagrosen jarrera hau benetan eskertzekoa zen, egiten zigun mesedeagatik eta eskaintzen zigun konfiantzagatik, Bibliotekan, liburuetan zegoen altxor kulturala gogoan izanik.

Astero Carlos Santamaria, Joxe Migel Zumalabe, Aingeru Irigaray eta Xalbador Garmendia biltzen ginen, “Zortzi urteko ikastola hiztegia” eta beste egiten aritu ginenean. Berdin geroxeago matematika hiztegia egiteko asmotan Mikel Zalbide eta Jesus M^a Goñi gehitu zirenean, bilera hauek zirela eta uzten zigun giltza. Benetan borondate oneko jendea biltzen zen bilera hauetara, beti musu-truk, euskal munduak, ikastolak eta abarrek zuten premia nolabait betetzeko. Ni izanen nintzen zerbait kobratzen zuen bakarra, seguro sozial eta deus gabe. Orduan, euskal munduko giroa horrelakoa zen, ez nintzen ni salbuespen bakarra.

Hamazazpi urte pasatu nituen Diputazioan, (1968-1985), batez ere fotokopiak atera behar nituenean sumatzen nuen zegoen giroa. “Zortzi urte arteko ikastola hiztegia” egiteko, bagenituen 15-20 aholkulari, Carlos Santamariak prestatutako erdal zerrendari, euskal ordaina jar zezaten, bialtzen genizkienak.

Hau guztia jarri dut, hobekiago ulertzeko orduko giroa, zeren Milagrosek ere ez zuen izanen giro egokia euskal ikuspegitik begiratuta. Ez nuen sekulan Milagrosekin gauza hauetaz hitzegin baina berez adierazten dute orduko egoera Diputazioan.

Diputaziotik kanpo zegoen zurrunbiloak ere ez zion asko lagunduko Milagrosi, zeren 1976an ondoan zeukan pertsona eta buru egiten zuena, Juan M^a Araluze Villar, Diputatu Nagusia, ETAk hil zuen. Euskaltzaindia ere garai horretan Diputazioan zegoen.

Milagrosek ere jasan zuen toki aldaketa, Bibliotekako zerbitzu hobeak eman nahiez jakina, baina ez zen atsegina izanen beretzako 1978.urtean Diputazioan 3.solairutik behedora biblioteka aldatu zenean.

Franco hil ondoren (1975 Franco hil zen) politikaren egoera aldatu eta beste aro bat hasi zen Diputatu Nagusi berriak sartu zirenean

Milagrosen euskal kutsua

Euskal kutsua Milagrosek batez ere familiaratik jaso zuen. Euskara maite zuen eta Koldo Mitxelenaren laguntza izan zuen horretarako

Baina berriro diot 1922.urtean jaioa, goi mailako batxillerra eta karrera egina, emakumea izanik iritsi zen mailara ikusiaz ez da ahuntzaren gauerdiko eztula alajainena!. Dagoen tokian, hemen aurkitu ez zuen laguntza eta patxada izan dezala.

Donostian 2009ko otsailaren 27an